



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2018KO ABENDUAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko abenduaren 28an arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Bakartxo Ripalda eta M<sup>a</sup> Mar Ansorena.

BERTARATU EZ DIRENAK: Aitor Arangoa.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.**

Azaroko ohiko batzarreko akta deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

#### **2.- Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2018/106 alkate ebazpena abenduaren 10ekoa Jose Luis Diaz Iturraldi zuzendua iharduera baimena ez kaltegarria emanaz ekainaren 23ko 2003/148 Foru Dekretuaren 5.6 artikulua araberako Jauntsaratsko 5 poligonoko 11 eta 79 lursailetan 50 ardi edukitzeko.

- 2018/107 alkate ebazpena abenduaren 26koa Pili Mikeo Mikeori zuzendua baimena emanaz Pili Mikeo Mikeori, Abenduaren 29an, arratsaldeko 19:00etatik 23:00etara Aizarozko kultur etxeko gela handia erabiltzeko.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

#### **3.- Udal planaren berritzea. Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Ereduaren onspena.**

Alkateak adierazten du Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Ereduaren dokumentua aztertu ondoren eta tramitazioarekin jarritzeko dokumentuaren onespeneraren erabakia hartu behar du udalbatzak, hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**- Onartzea Basaburuko udal plana berritzeko Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredu dokumentua, dokumentu hau jendeaurreko epean hilabetez egon ondoren Nafarroako Aldizkari Ofizialean abuztuaren 17an argitaratuta eta, parte hartze prozesuan jasotako ekarpenak eta Nafar Gobernuako departamentuetako txostenetan finkatzen zituzten irizpideak bilduz,**

**- Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredu dokumentua Etxebizitza Atalera helarazi udal plana berritzeko jarraipen batzordean onartu dezan.**

#### **4.- Aralar Musika Eskolako aldi baterako langileen kontratuak egokitzeko akordioa.**

Alkateak azaltzen du, 2018ko ekainaren 18ko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Diligentzia bitartez, gaur egun, Araitz, Basaburua, Betelu, Goizueta, Larraun, Lekunberri eta Ultzamako Udalei zerbitzua ematen dien "Escuela de Música y Cultura Aralar" erakundeari, musika-eskolako aldi baterako kontratu guztiak 2018 urtea amaitu baino lehen kontratu mugagabe izaerara eraldatzeko errekerimendua egiten zaio.

Horregatik guztiagatik, eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako errekerimenduak ekar ditzakeen ondorioak ikusita, Udal honetako osoko bilkurak honako erabakia hartzen du:

**1.- Escuela de Música y Cultura Aralar-ek emandako musika irakaskuntzetako prestakuntza-zerbitzuarekin jarraitzeko borondatea erakustea.**

**2.- 1990ean, aurrez adierazitako herrietako osoko bilkurek onartutako izaera mugagabeko hitzarmenean hartutako konpromisoak berrestea, eta bereziki, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak egindako eskakizuna dela eta, Eskolak izan ditzakeen betebeharrak eta zorrek bere gain hartzea, argi izanik, itunaren izenpetzaile moduan udal guztiak direla Eskolak sortzen dituen betebeharrak eta zorren aurrean erantzule. Lekunberriko Udaletxeak gauzatu ditzakeen ekintzak, izenpetu duten guztien izenean eta beraien ordezkari moduan gauzatuko ditu eta ondorioz, izenpetutako guztiak izango dira ekintza horiek beste batzuegan sor dezaketen eraginaren aurrean erantzule.**

**3.- Escuela de Música y Cultura Aralar-ek eskaintzen duen musika irakaskuntza zerbitzua deuseztatzeak aukeraren aurrean, honi buruzko eskaera irailean musika ikasturte bateko aurrerapenarekin egiteaz gain, udal eskatzaileak, berari dagokion portzentaian, bere gain hartuko ditu deuseztapenaren ondorioz sor daitezkeen zor eta betebeharrak ezberdinak.**

**4. – Escuela de Música y Cultura Aralar administraritzatik, gaur egungo langileen aldi baterako kontratuak izaera mugagabeko eraldaketa gauzatzeko egin beharreko ekintzak aurrera eramatea adosten da**

Gai ordenetik kanpo badaude beste bi gai aho batez gai ordenean sartzea onartu dituztenak bildutakoek.

### **-2019ko tasa eta zergak.**

Alkateak gai hau ogasun batzordean aztertu dela adierazten du eta aurreko urteko tasei KPI-a igotzea proposatu zela, horrela geldituko direlarik 2019ko tasak.

Uraren tasak gainera kontzejuekin abenduaren 26an egindako bileran adostu ziren.

#### **URAREN TASAK:**

- Ur kontsumoa 0.270 €/m<sup>3</sup>
  - Ur hornidura kuota: 19.73 euro (seihilabeteko)
  - Saneamendu kuota: 19.73 euro (seihilabeteko)
  - Ur lotura 262.78 euro.
- Hiri kontribuzioa; 2018ko tasa 0,227 izanik, KPI a igoz 0.231an uztea erabaki dute. Nafarroako azaroko KPI-a %1.8 izan da.
- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.
- 1.170eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko aurreko urtetik ere KPIa igoz (2018ko erakuslea 1.150 izan zen).
- Lurren baloreen igoeraren zerga, 2019ko foru legearen arabera.

Urtebetetik beherakoa	0,09
Urtebete	0,09
2 urte	0,18
3 urte	0,28
4 urte	0,20
5 urte	0,06
6 urte	0,06
7 urte	0,06
8 urte	0,06
9 urte	0,06
10 urte	0,06
11 urte	0,06
12 urte	0,06
13 urte	0,06
14 urte	0,06
15 urte	0,06
16 urte	0,16
17 urte	0,29
18 urte	0,43
19 urte	0,56
20 urte edo hortik gorakoa	0,63

## KARGA %25a.

AIZAROSKO EPAITZAK: PREZIO PUBLIKOA Finkatuko da gastua sortzen denean, eta pisuaren arabera kobratuko.

AIZAROSKO BARATZEN ERABILPENA: Hitzarmenean sinatu bezala 13 euro baratzeko kobratuko dira KPI-a igoz, kontutan hartuta baratzak lur patrimonialean kokatuak daudela eta hortaz kobratu beharrekoa lursail horri dagokion ordaindu beharrekoa, errenta bezala kontutan hartuko da.

## HIRIGINTZA TASAK

Aurreko urtetan bezala mantentzea erabaki dute bildutakoek.

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 50,00 €

>5000<15000: 70,00 €

>15000<30000: 140,00 €

<30000<60000: 210,00 €

<60000<150000: 280,00 €

>150000<300000: 350,00 €

<300000<600000: 420,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 70,00 € (Testua aldaketa Eranskina, zuinketa akta eta kontsultak 70,00€.

- Urbanizatu ezin den lurlean eraikitze baimena: 105 €			
- Sailkatutako jarduera baimena edo aitorpena arduratsua : 140 € 4D eranskineko jarduerak: 172 € Ikuskaritza bisitak: 365 €			
- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 230 €			
- Irekiera baimena edo aitorpen arduratsua: 245 €			
4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak 443 €			

4D eranskinako jarduerak: 260 € Ikuskaritza bisitak: 365 €			
Eranskina: 70 €			
- Lursailen zatiketa baimenak: 205 €			
- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak: 210 €			
- Udal Planaren aldaketa zehatzak: 245 €			
- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak : 315 €			
- Bestelako informeak, alegazioak: 175 €			

#### JAUN SARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA

Kirol batzordean ere tasak mantentzea erabaki dute hortaz hauek izanen dira 2019ko polikiroldegia erabiltzeko tasak.

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.
- 3 euro/ordua kantzako argia erabiltzeko
- 5 euro/ordua polikiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

Bildutakoek hortazk 2019ko tasak eta zergak onartzen dituzten eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan daitezzen agindu.

#### **- Cederna Garalur. Garapen agentea lanaldi erdian kontratatzeke proposamena eta hitzarmena.**

Alkate ordeak azaltzen du aurreko batzarrean hitz egin bezala, jardunaldi erdian garapen agente bat kontratatu behar da lehen sektoreari bultzada emateko. Kontratazio hori aurrera eramateko Mendialdea zonaldeko udalek Cedernatik bidalitako hitzarmena onartu eta sinatua behar dute. Hitzarmen horretan finkatzen dira pertsonen

honen kontratazioaren helburuak, eta kostea. Irakurtzen dira hitzarmena eta bildutakoek ondoko erabakia hartzen dute:

- **Onartzea Cederna Garalurrekin lehengo sektorea Mendialdea zonaldean dinamizatzeko lankidetzaren hitzarmena eta hitzarmen hau sinatzeko Basaburuko alkatea den Esther Lacasta Perez Ilzarbe. Ahalmentzea.**

- **Onartzea hitzarmen honetan zehazten diren helburuak gautzatzeko lanaldi erdian garapen agente bat kontratatzea Cederna Garalurrekin Mendialdeko zonalderako eta onartzea ere kontratazio honen gastua, Basaburuko udalari dagokiona 1.705,20 eurokoa.**

- **Erabaki hau Cederna Garalurri jakinaraztea.**

#### **5.-Mozioak.**

Alkateak adierazten du Nafarroako Jota, ondare materiagabe izendatzeko eskaera aurkeztu zutela euskaraz bidaltzea emailaz eskatu zen eta ez dute bidali.

#### **6.- Batzordeen informazioa.**

##### **- Gizarte Politika Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Fibriladore bat erosi da botikako aterpean jartzeko. Bestetik pintxo lehiaketa burutu zen abenduaren 9-10 eta 16-17 asteburuetan eta Igoako Ostatua izan zen irabazlea.

##### **-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.**

Abenduaren 28an pilota goxuaren finalak izanen dira.

#### **7.- Informazio orokorra.**

- 2018/1571 ebazpena Ganaderitza zerbitzuko ES3104900000033 abere ustiapenean dauden animalien konfiskazioa agintzen duten.

- 2018/282E ebapena Arte eta Kultura 2018ko dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren 858,20 euroko ordainketa egitea onartuz.

- INEtik bidalitako 2018ko biztanleriaren kopurua 2018ko urtarrilaren 1eko datarekin, 839 biztanle.

- 2018/157E Foru Agindua onartuz behin betikoz Aizarotzko 10. poligonoko 5 eta 29. lursailekin lotuta egiturazko udal planaren aldaketa , ibaiarekin lotutako gunea sortzeko.

- Agenda 21ean sartutako adinduen gelaren obra bukaeraren justifikazioa aurkeztu ondoren dirulaguntzaren ordainketa onartzen dute Ingurugiro eta Lurralde Antolmaneutiko Zuzenbide Orokorretik, dirulaguntzaren ordainketa 20.000 eurokoa izanen delarik.

- Uraren zikloaren plana. Kontzejuen bileran azaldu zen uraren zikloaren planaren prestaketarekin dabilela NG-a, 12 urterako plana bai zanen da eta bertan sartuko dira ur azpiegitura, saneamendu azpiegiturak, fosak eta abar.... Alegazio epean dago orain planaren tramitazioa eta ekarpenak egin ahal dira.

Plan honetan aurreikusten dute Itsaorako fosa septikoa berritzea baina ikusita beste kontzejuetako fosak eta azpiegiturak egoera txarrean daudela kontzejuak adierazi zitzaizen egoera hauen berri eman zezaten.

Gainera uraren kontrol gehiago bultzatuko da plan berri honekin eta depositoetan ura neurtzeko sistemak jartzea derrigortuko dituzte udalak, ura ez galtzeko. Sistema hauek jartzeko ere dirulaguntza deialdia aterako dute %50koa.

- Banda zabalaren azpiegitura Basaburuan. Estatuak dirulaguntza deialdi berri bat atara du operadoreei zuzendua, banda zabalaren seinalea iristen ez den tokiak hornitzeko, Basaburutik Aizarotz, Jaunsarats, Arrarats eta Udabe Beramendi sartuak daude dirulaguntza honetan eta bi empresa izendatuak lan hori egiteko Telefonía eta Adomo.

### **8.-Errege-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:30ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.